

BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

3183

EBAZPENA, 2013ko otsailaren 18koa, Ingurumeneko sailburuordearena, Leaz Valorización, S.L. enpresak Azkoitiko udalerrian (Gipuzkoa) sustatutako hondakin ez-arriskutsuen zabortegirako ingurumen-baimen bateratua ematen duena.

AURREKARIAK

2006ko abenduaren 29an, Roberto José Alonso Ruiz jaunak, Leaz Valorización, S.L. enpresaren izenean eta ordezkari moduan, Eusko Jaurlaritzako orduko Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailari ingurumeneko baimen bateratua ematea eskatu zion, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak xedatutakoaren arabera, Azkoitiko udalerrian (Gipuzkoa) hondakin ez-arriskutsuen zabortegi-jarduera ezartzeko. Eskaerarekin batera honako dokumentazio tekniko hau aurkeztu zuen:

- «Azkoitiko zepa-zabortegia birmoldatzeko, zigilatze eta handitzeko aurreproiektua» (2006ko abendua).
- «Azkoitiko (Gipuzkoa) hondakin geldoen zabortegi-proiektua» (1996ko martxoa).
- Azkoitiko Udalak 2006ko abenduaren 5ean hirigintza-bateragarritasunari buruz emandako ziurtagiria.

Erreferentziako baimena eskatzeko unean Leaz Valorización, S.L. enpresak, besteak beste, jarduerarako baimena zuen, Azkoitiko Udalak emana.

Aurkeztutako dokumentazioa nahikoa zela egiaztatu ondoren, Ingurumen sailburuordeak 2008ko urriaren 10ean emandako ebazpenaren bidez, jendaurrean jarri zen 30 egun balioduneko epean Leaz Valorización, S.L. enpresak sustatutako proiektua, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian nahiz Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, bietan 2008ko urriaren 29an. Era berean, ondoko auzokide bakoitzari jakinarazpena bidali zitzaion.

Jendaurrean jartzeko izapidea amaitu ondoren, alegaziorik ez dagoela egiaztatu da.

Eskaeraren izapidetzearekin jarraitzeko asmoz, 2011ko maiatzaren 11n, agiri gehigarriak txertatzeko eskatu zitzaion sustatzaileari, eta 2012ko martxoaren 27an osatu ziren agiriak.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoa betez, 2008ko abenduaren 11n Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak txostenak eskatu zizkien Azkoitiko Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari, espedientean ageri den emaitza jasoz.

2013ko urtarrilaren 24an, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan xedatutakoa betez, espediente osoa Leaz Valorización, S.L. enpresaren esku utzi zen, Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailak egindako ebazpen-proposamenaren zirriborroa gehituta. Ez zen horren inguruko jakinarazpenik jaso.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzkoaren 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horrek atmosferaren, uraren eta lurzorua kutsadura saihestea du helburu, edo hori ezinezkoa bada, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezarri eta ingurumen osoaren babes-maila altua lortzeko.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatu eta burutzeko Erregelamendua onartzen duen apirilaren 20ko 509/2007 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez, baimen honetan sartzen dira ekoizpen-elementu eta -lerro guztiak; 16/2002 Legearen 1. eranskinean aipatzen ez diren arren, lege hori aplikatu beharreko esparruko jardueren instalazioetan gauzatzen direnak eta jarduera horrekin zerikusi teknikoak dutenak.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 9. artikuluan xedatutakoa betez, ingurumeneko baimen bateratua behar da 1. eranskinean aipatzen diren jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko. 11. artikulua arabera, baimen honen oinarritzko helburua baldintzak ezartzea da, araua, berau aplikatu daitekeen instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena emateko parte hartuko duten Herri Administrazio desberdinen artean koordinatuta izango den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzearren. Era berean, indarrean dagoen araudiaren arabera ingurumeneko administrazio-baimen guztiak egintza administratibo bakar batean bildu nahi dira. Leaz Valorización, S.L. enpresaren kasuan, lurzorua kutsadura prebenitu eta zuzentzeko dagozkion baimenak behar ditu. Gainera, espedientean beste administrazio eta erakunde eskudun batzuek ere parte hartu dute, aginduzko txostenak igorritik.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 29. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozedurak azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuak, Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuei buruzkoak, aurreikusten duen jarduera sailkatuetarako udal-baimenaren prozedura ordezkatzeko du; ez du ordezkatzeko, ordea, udal-agintaritzak emango duen behin betiko ebazpena. Ondorio horietarako, ingurumen-baimen bateratua udal agintarientzat loteslea izango da, baldin eta lizentzia ukatzeko bada edota neurri zuzentzaileak ezartzeko; baita goiko arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen alderdiei buruzko aipamena egiten bada ere. 29. artikulua horretan aipatzen denez, goiko guztiak ez ditu kaltetuko autonomia-erkidego bakoitzean jarduera sailkatuei aplikatzekoak diren gainerako arauak. Transkribatutako aginduak aplikatuz, Leaz Valorización, S.L. enpresari dagokion ingurumeneko baimen bateratuaren prozedurak barne hartu ditu Euskal Herriko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean aurreikusitako izapideak; horiez gain, espedientean sartu dira Azkoitiko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren txostenak.

Azkenik, instalazioak gehienez isur ditzakeen gai kutsagarrien balioak eta ingurumena, oro har, ahalik eta gehien babesteko ustiapenerako ezarriko zaizkion beste baldintza batzuk zehazte aldera, ebazpen hau egiterakoan kontuan izan dira bai teknika baliagarri onenen erabilera, bai hondakinak zabortearen utziz hondakinaren ezabatzea arautzen duen abenduaren 27ko 1481/2001 Errege Dekretuak ezarritako neurriak eta baldintzak.

Espedienteko txostenak aztertu ondoren, ebazpen-proposamenaren zirriborroa sinatu eta Leaz Valorización, S.L. enpresak sustatutako proiektuak bete beharreko baldintzak ezarri ziren.

Goian adierazitako izapideak amaitu dira, eta Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan jasotzen den entzunaldi-izapidea bete da. Ildo horretan, kontuan hartu behar da organo honi atxikitako zerbitzu teknikoek sustatzaileak

izapide honetan egindako oharrak aztertu dituztela, eta guztiak kontuan hartu direla ebazpen hau lantzeko orduan.

Organo honek du ingurumen-baimen bateratua emateko eskumena, aipatu arauaren 13. artikuluan, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta haien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuan eta Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen abenduaren 22ko 629/2009 Dekretuaren 8. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Ondorengo araudia ikusi da: Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak 2013ko urtarrilaren 24an emandako ebazpen-proposamena; otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra, Euskal Herriko Ingurumena Babesteari buruzkoa; uztailaren 1eko 16/2002 Legea, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzkoa; urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretua, Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazioaren Legearen testu bategina onartzen duena; abenduaren 15eko 20/2012 Dekretua, Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta haien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen; abenduaren 22ko 629/2009 Dekretua, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa ezartzen duena; azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa; eta aplikatzekoa den gainerako araudia.

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Helbide soziala Bilboko udalerriko (Bizkaia) Iparragirre kaleko 34. zenbakian, 2. solairuko eskuinean, eta IFK: B95452769 duen Leaz Valorización, S.L. enpresari ingurumeneko baimen bateratua ematea, Azkoitiko udalerrian sustatutako hondakin ez-arriskutsuen zabortegirako, ebazpen honen bigarren atalean ezarritako baldintzekin.

Jarduera 5.4 kategorian sartuta dago: «Mota guztietako hondakinen zabortegiak, egunean 10 tonatik gora hartzen dituztenak, edo guztira 25.000 tonatik gorako edukiera dutenak, hondakin geldoen zabortegiak izan ezik» (Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. eranskina).

Leaz Valorización, S.L. enpresaren jarduera hondakin ez-arriskutsuen zabortegi bat itxi ondoren kontrolatzea, mantentzea eta zigilatzea da.

Zabortegia Azkoitian dago, Usaola auzoan, GSB fabrika zegoen lekutik hurbil dagoen ibar batean, Zumarragatik Azkoitirako errepidearen azpian. Zabortegiak, gutxi gorabehera, 14.000 m² hartzen ditu.

Altzairu-fabriketako zepen zabortegia da.

Zabortegia kokatzen den eremuaren gutxi gorabeherako koordenatuak hauek dira: X: 555.214 eta Y: 4.779.795.

Zabortegia Azkoitiko GSB Acero altzairu-fabrikako zepena da, baina haren labea 2007an itxi zuten, eta, horregatik, ez da hondakinik isuri urte hartaz geroztik.

Zabortegia mazela batean dago, oina ibarraren hondoan duela, eta Usaola erreka bidea zertxobait desbideratzen du. Gaur egun, hiru ezpona daude, ia-ia laua den goi-plataforma batean amaitzen direnak.

Zabortegeiak ez dauka iragazgaizterik oinarrian, baina bai lixibiatuak ezabatzeko sistema bat 1. ezpondaren oinean. Errekan behera, bi kontrol-piezometro daude, Usaola erreken bi ertzetan kokatuta.

Leaz Valorización, S.L. enpresak zabortegeko azpiegituren mantentze-lanak egiten ditu.

Instalazioa arriskutsuak ez diren hondakin inorganikoentzako (materia organikoan edo biodegradagarrian eduki txikia izanik) zabortege gisa sailkatuta dago (B1b azpi-kategoria), hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuan xedatutakoaren arabera.

Instalazioan, isuri-ontziko lixibiatuak dira sortzen diren hondakin nagusiak: neutralizazio-putzu batera eramaten dira, eta, geroago, haien neutralizazioa egiten da, CO₂-ak bor-bor egitearen bidez.

Isuri-ontzia puntu hauek mugarritzen dute (UTM ETRS 89 koordenatuak):

X: 555.142,83. Y: 4.779.895,07.

X: 555.179,79. Y: 4.779.886,42.

X: 555.203,39. Y: 4.779.872,26.

X: 555.285,19. Y: 4.779.786,53.

X: 555.281,26. Y: 4.779.744,84.

X: 555.252,94. Y: 4.779.711,81.

X: 555.238,79. Y: 4.779.711,02.

X: 555.185,3. Y: 4.779.760,57.

X: 555.151,48. Y: 4.779.807,77.

X: 555.166,42. Y: 4.779.825,64.

X: 555.167,21. Y: 4.779.847,88.

X: 555.137,32. Y: 4.779.885,64.

Bigarrena.— Leaz Valorización, S.L. enpresak Azkoitiko udalerrian sustatutako hondakin ez-arriskutsuen zabortege-jarduera ustiatzeko ondorengo baldintzak eta betebeharrak ezartzea.

A) Erantzukizun zibileko aseguru bat eratu beharko da milioi bat (1.000.000) euroko zenbatekoaz, ondorengoak estaliko dituen: hirugarren pertsonen edo haien ondasunen sortutako balizko kalteengatik kalte-ordainak, eta baimen honek onartutako jardueraren ondorioz ingurumen aldatua konpondu eta berreskuratzeko kostuak.

Leaz Valorización, S.L. enpresak erantzukizun zibileko asegurua eguneratu izanaren ziurtagiria igorri behar du urtero Ingurumen Organora, eta polizan edozein aldaketa gertatu bada, ingurumen-organoari jakinarazi beharko dio. Gainera, kontratatutako aseguru berria osatzen duten baldintza orokor, berezi eta berariazkoen kopia ere igorriko da.

B) Sustatzaileak finantzen azterketa eguneratua aurkeztu beharko du, eta hartan honako hauek jasoko dira: A puntuan (erantzukizun zibileko asegurua) ezarritako bermetik eratorritako gastuak, kalkuluen arabera ixteak ekarriko dituen kostuak, geroago 30 urtez mantentzearenak, eta baimen honetan babes- eta zuzenketa-neurriak nahiz ingurumena zaintzeko programa gauzatzeari

dagokionez adierazitako eskakizun guztienak, D.2.2 atalean (Baldintzak, saneamendu-sarera isurtzeari dagokionez) xedatutakoaren arabera ezarri beharreko instalazioaren kostua barne.

Finantzen azterketa horretan, gastuak eta diru-sarrerak sailka eta urteka xehatuta egon beharko dira, aurreikusitako ustiapen-planarekiko koherentzian.

Aipatutako finantza-azterketa oinarritzat hartuta, fidantza bat ematea erabakiko da, eta haren zenbatekoa aipatu azterketa horretan proposatu beharko da. Ingurumen-organoak fidantza horren behin betiko kopurua berretsiko du.

Fidantzaren zenbatekoa erabakitzeke, zigilatze- eta ixte-kostuak, itxi ondoren 30 urtez egin beharreko mantentze-lanaren kostua eta lixibiatuen kudeaketarena kontuan hartuko dira, eta fidantzaren xedea izango da jardueraren ondorioz, eteten bada, Administrazioarekiko sor daitezkeen betebeharrak guztiak betetzearen erantzule izatea.

Hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuaren 14 artikuluko hirugarren atalean xedatutakoaren arabera, organo horrek hiru urtean behin eguneratuko du fidantza Prezioen Indize Orokorren aldaketaren arabera, oinarritzko indizetzat hura eratzen den egunean indarrean dagoena hartuta.

C) Leaz Valorización, S.L. enpresak instalazioaren eta Administrazioarekiko harremanen ardura-dun tekniko bat izendatu beharko du. Izendapen horiek Leaz Valorización, S.L. enpresaren legezko ordezkariak eta izendatutako pertsonak sinatutako agiri batean jasoko dira, eta datu hauek izango dituzte: izen-abizenak, NANA, helbidea jakinarazpenetarako, eta kualifikazio teknikoa. Leaz Valorización, S.L. enpresak aipatu izendapen horiek Ingurumen Organoari jakinaraziko dizkio.

D) Neurri babesle eta zuzentzaileak sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusi bezala gauzatuko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera eta ondorengo ataletan ezarritakoari jarraituz:

D.1.– Obra-faseko baldintza orokorrak.

D.1.1.– Jarduketa-esparrua mugatzea.

a) Obrak eta lurzoruen okupazioa ekartzen duten eragiketa osagarriak proiektuaren mugen barruan garatuko dira. Ahalik eta gehien murriztuko da obretako makinaren eta ibilgailuen zirkulazioa aipatutako mugetatik kanpo.

b) Adierazitako esparru horretan ustekabeko kalteren bat sortuz gero, neurri zuzentzaile eta gunea eraberritzeko neurri egokiak hartuko dira, ebazpen honen D.1.7 atalean aipatutako ingurumen-aholkularitzak txostena egin ondoren.

c) Obrarako sarbideak, makina-parkea, obrako materialak aldi baterako biltegitratzeko gunea, hondeaketa-lurren eta hondakinen aldi baterako metaketak ingurumenean ahalik eta eragin txikiena izateko moduan proiektatuko dira. Obrak hasi aurretik, aurreko alderdiak xehetasunez adierazten dituen mugaketa egingo da kartografian. Mugaketa hori obra-zuzendaritzak onartu beharko du, aurrez ebazpen honen D.1.7 epigrafean aipatutako ingurumen-aholkularitzaren txostena eginda.

D.1.2.– Lurzorua eta urak babesteko neurriak.

a) Obrako makinak edukitzeko eta haien mantentze-lanak egiteko tokia drainatze naturaleko saretik bereiziko da. Zola iragazgaitza eta efluenteak biltzeko sistema izango ditu, olioek eta erre-gaiek lurzorua eta ura kutsa ez ditzaten. Ezin izango da erregairik zamatu, oliorik aldatu eta oro har tailerreko lanik egin adierazitako gunetik kanpo.

b) Eraikuntza-lanak egin bitartean, ahalik eta material xehe gutxien bota behar da drainatze naturaleko sarera. Horretarako, urak bideratzeko gailuak eta solido esekiei eusteko sistemak proiektatu eta egingo dira, obren ondorioz kutsatutako urak bertan biltzeko.

D.1.3.– Hauts-isurtzeak gutxitzeko neurriak.

a) Obrak dirauen artean, bideak eta ibilgailuak igarotzeko beste lekuak garbitzeko kontrol zorrotza burutuko da, bai obrek erasandako ingurunean, bai horietarako sarbideetan. Aldi baterako hutsik dauden pistak eta azalerak ureztatzeko sistema eduki beharko da.

b) Obra-guneetako irteeran ibilgailuak garbitzeko instalazioak izango dira. Instalazio horien ezaugarriak eta kokaleku zehatza ebazpen honen D.1.8 puntuak aipatzen duen dokumentazioan jaso beharko dira.

D.1.4.– Zarata eta bibrazioen eraginak gutxitzeko neurriak.

Eraikuntza-fasean, proiektuan eta ebazpen honetan deskribatutako neurriak aplikatu beharko dira, honako hauei dagokienez: makinaren baldintzak, otsailaren 22ko 212/2002 Errege Dekretuak, kanpoan erabiltzeko makinek ingurumeneari sortzen dituzten soinu-igorpenak arautzen dituenak (apirilaren 28ko 524/2006 Errege Dekretuak aldatua bera) xedatutakoa betetzeko; haiek mantentzea; eta lan-ordutegiak.

D.1.5.– Hondakinak kudeatzeko neurriak.

a) Obretan sortutako hondakinak, hondeaketetakoak, ebakiak, enbalajeak, erreuseko lehen-gaiak eta garbiketa-kanpaina prestatzeak eragindakoak barne, hondakin eta zoruei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legean eta aplikatzekoak diren berariazko araudietan aurreikusitakoaren arabera kudeatuko dira.

b) Obran sortutako hondakin guztiak, horien baliotzea teknikoki eta ekonomikoki bideragarria bada, hondakin-balioztagune baimendu batera igorri beharko dira. Hondakin horien balorizazioa teknikoki, ekonomikoki edo ingurumenaren ikuspegitik bideraezina dela behar bezala ziurtatu ondoren soilik deuseztatu ahal izango dira hondakinak.

c) Zabortegira bideratu behar diren berrerabili edo baliotu gabeko materialak zabortegietan hondakinak onartzeko irizpide eta prozeduren arabera kudeatu behar dira.

d) Betelana egiteko edo lurra egokitze hondakinak honako honen arabera kudeatuko dira: 49/2009 Errege Dekretua, otsailaren 24koa, hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena.

e) Hondeaketako soberakinak gordailutzearen betelan bat sustatu nahi bada, hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Errege Dekretuan xedatutakoa betez, betelan-proiektu egokia idatzi beharko da, Udalaren edo organo honen administrazio-baimena lortzeko, aipatu arauaren 26. artikuluan xedatutakoaren arabera.

f) Olio erabiliak ondorengo arauari jarraituz kudeatuko dira: irailaren 29ko 259/1998 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko olio erabilien kudeaketa arautzen duena, eta ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretua, industriako olio erabilien kudeaketa arautzen duena.

Olio erabiliak kubeta edo segurtasun-sistema barruko gordailuetan gordeko dira aldi baterako, kudeatzaile baimenduak jaso arte, gordailu nagusia hausteagatik edo estankotasuna galtzeagatik

olioak sakabanatzea saihesteko. Horretarako, kontratistak berak dituenak edo Leaz Valorización, S.L. enpresak Azkoitiko zabortegiko instalazioetan dituenak erabiliko dira.

g) Hondakinak kudeatzeko araudia betetzea errazteko, lan guztietan sortutako hondakinak kudeatzeko sistemak jarri beharko dira. Lan horien arduradunek kudeatuko dituzte sistema horiek, eta horien ardura izango da, halaber, beharginek hondakinak behar bezala erabiltzea. Bereziki, erregai eta produktuak biltegitratzearen, makinen mantentze-lanak egitearen edo hondakinak erreztzearen ondorioz ez dira inolaz ere efluente kontrolatu gabeak sortuko.

Aurrekoaren ildotik, gune espezifiko bat prestatuko da, eta bertan jarriko dira hondakin arrisku-tsuak –olio-latak, iragazkiak, olioak, pinturak eta abar– aldi baterako gordeko dituzten instalazio estaliak; gainera, haietatik bereizita, edukiontzi espezifikoak jarriko dira hondakin ez-arriskutsu eta geldoentzat. Edukiontzi horiek itxita egongo dira kudeatzaileari entregatu arte, isurketa edo lurrunketa direla-eta edukia ez galtzeko. Era berean, sortutako hondakinak biltzeko gailu estankoa (bidoiak eta abar) ezarriko dira obran zehar, eta izaeraren arabera bereiziko dira. Hori guztia, aipatutako gune garbian aldi baterako biltegitratu aurretik egingo da, eta, horretarako, kontratistak dituenak edo Leaz Valorización, S.L. enpresak Azkoitiko zabortegiaren instalazioetan dituenak erabiliko dira.

D.1.6.– Obraren garbiketa eta akabera.

Obra bukatu ondoren, eremua ondo garbitu beharko da, proiektuaren eragin-eremutik obra-hondakin guztiak kenduz.

D.1.7.– Ingurumen-aholkularitza.

Obra amaitu arte eta horren berme-aldian zehar, obra-zuzendaritzak ingurumenaren, eta oro har, neurri babesle eta zuzentzaileen inguruan kualifikatutako aholkularitza izan beharko du. Aipatutako gaiak direla eta baldintza-agiriak obraren zuzendaritzari esleitzen dizkion funtzioekin zerikusia duten ebazpenak emateko, aldeztu aurretik aholkularitza ematen duten adituek egindako txostena aztertu beharko da.

D.1.8.– Lan-programa diseinatzea.

Kontratistak ekintza-proposamen xehatu batzuk egin beharko ditu ondorengo azpiataletan adierazitako alderdiei buruz. Proposamen horiek, ebazpen honetan kasu bakoitzerako ezartzen diren irizpideen arabera diseinatuko dira eta obra-zuzendaritzak espresuki onetsi beharko ditu, aurreko atalean aipatutako ingurumen-aholkularitzak aurrez txostena eginda. Ondoren lanak burutzeko programan txertatuko dira. Honakoak dira agiriok:

a) Kontratistaren instalazioen guneen kokapenari eta ezaugarriari eta hondakinak aldi baterako biltegitratzeari buruzko xehetasunak, ebazpen honen D.1.1 atalean aurreikusitakoaren arabera.

b) Xehetasuneko kartografian seinalatzea intereseko zer landaredi-gunetan ez den aurreikusten okupazio zuzenik (ebazpen honen D.1.1. atalean aipatzen dira).

c) Ebazpen honen D.1.2 atalean aurreikusitako solido esekiak atxikitze gailuen xehetasunak eta kokapena.

d) Ebazpen honen D.1.3 atalean aurreikusitako ibilgailuak garbitzeko gailuen xehetasunak eta kokapena.

D.1.9.– Jardunbide egokien kontrola obrak garatu bitartean.

Obrak garatu bitartean jardunbide egokien kontrol bat egingo da, arreta berezia jarritz eragindako azalerari eta ingurune urtarraren babesari, hondakinen kudeaketari (hondeaketako soberakinak barne), solido esekiei eusteko gailuen funtzionamenduari, hautsa eta zarata egiteari, eta ebazpen honetan adierazitako beste alderdi batzuei.

D.1.10.– Obra-amaierako txostena

Obra bukatu eta hilabeteko epean, Leaz Valorización, S.L. enpresak obra-zuzendaritzak sinatutako obra-amaierako ziurtagiria bidali beharko du Ingurumen Organora. Ondorengo agiriak jaso behar ditu:

- Obren garapenean zehar sortutako gorabeherak.
- Ebazpen honetan jasotako neurri babesle eta zuzentzaileen betetze-maila, eta hondeaketa-materialen kudeaketa zuzena gauzatzeko ingurumen-organoak eskatutako neurriena.
- Hala badagokio, obra gauzatu bitartean egin diren aldaketak. Xehetasunez dokumentatu beharko dira, segurtasunaren edo ingurumen-babesaren murrizketa ez dutela ekartzen egiaztatuz (dagokionean, kalkulu justifikagarriak). «As built» planoak gehituko dira.
- Obran zehar ingurumena zaintzeko garatutako programaren emaitzen txostena, sortu diren hondeaketa-materialen helmuga zehatza eta kantitatea gehituta.
- Eraikitze-kalitatearen berme-kontrolaren emaitzak jasotzen dituen txostena; bereziki, geosintetikoen instalazioarena, edo in situ trinkotutako material mineralekin egindako hesi geologiko artifizialen instalazioarena.

D.2.– Instalazioaren funtzionamendurako baldintza orokorrak.

D.2.1.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

Prozesuan zehar atmosferara isurtzen den gai kutsatzaile oro bildu eta ihesbide egokienean zehar kanpora bideratuko da, behar denean, gai kutsatzaileen ezaugarrien arabera gasak arazteko diseinatutako sistema batetik igaro ondoren. Arau orokor hori bete beharrik ez dute izango isuri ez-zarratuak biltzea teknikoki edota ekonomikoki bideragarria ez denean, edo ingurunean kalte urria eragiten dutela egiaztatzen denean.

Neurriak hartuko dira ustekabeko isuririk ez egiteko, eta egiten direnak giza osasunerako eta gizartearen segurtasunerako arriskutsuak izan ez daitezen. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala ustiatuko eta mantenduko dira, efluenteen tenperatura- eta konposizio-aldaketei eraginkortasunez aurre egiteko moduan. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabiltzan edo geldirik dauden aldiak.

D.2.2.– Isurketak ibilgura egiteko baldintzak.

D.2.2.1.– Isurketen sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokapena.

Isurketa sortzen duen jarduera-mota nagusia: hondakin ez-arriskutsuen zabortegia.

Jarduera-taldea: Hondakinen kudeaketa.

Mota-taldea-EJSN: 1-7-3821.

Isurketa-gunea	Hondakin-ur mota	Isuriaren jatorria	Ingurune hartzailea
1	Zabortegeko lixibiatuak	Zabortege-ontzian utzitako materiala	Usaola erreka

Sustatzaileak isurketa-gunearen UTM koordenatuak eman beharko ditu (ETRS 89 sistema).

D.2.2.2.— Isurketaren emari eta bolumenak.

1. isurketa: zabortegeko lixibiatuak.

Batez besteko emaria	0,2 l/s
Puntako emaria	0,3 l/s
Urteko gehieneko bolumena	6.175 m ³ /urte

D.2.2.3.— Isurpenen muga-balioak.

Ondorengo zerrendan ageri dira isurketa eragin duen jardueraren parametroen ezaugarri nagusiak, bakoitzarentzat ezarritako gehieneko isurketarako muga-balioekin:

1. isurketa: zabortegeko lixibiatuak.

Parametroak	Isurtzeko muga-balioak
pH	6,5-9
Eroankortasuna	5.000 µS
Uhertasuna	80 NTU
Solido esekiak	35 mg/l
DQO	125 mg/l
Beruna guztira	0,2 mg/l

Ezingo dira diluzio-teknikak erabili isurtzeko muga-balioak lortzeko.

Gainera, ingurune hartzailearen ingurumen-kalitaterako arauak bete beharko dira. Horrela ez bada, titularrak behar den tratamendua ezarri beharko du, isurketaren ondorioz aipatutako kalitate-helburuak urratzen ez direla ziurtatzeko.

Baimen honek ez du babesten baldintza honetan esplizituki adierazitakoak ez diren beste gai batzuen isurketa, bereziki gai arriskutsuak badira.

D.2.2.4.— Arazketa- eta ebakuazio-instalazioak.

Industria-instalazio guztietan, arazteko instalazioak edo hondakin-uren neurri zuzentzaileak sustatzaileak aurkeztutako agirietara egokituko dira, eta elementu hauek izango dituzte funtsean:

- Lixibiatuak neutralizatzeko 2 x 5 x 3 m-ko putzua, kontrol-kutxatilak izanik sarreran eta irteeran.
- CO₂-ak bor-bor eginez pH-a neutralizatzea pH neurgailuz erregulatuta.
- Putzuan metatutako lohiaren aldian behingo ebaluazioa eta kanpo-kudeaketa.

Egiteko dauden jarduketak.

Gehienez ere sei hileko epean egin beharko da isurketa-mugak betetzearen kalitatea bermatzeko hartutako neurri zuzentzaileen ebaluazio-azterketa. Azterketa horren barruan honako hauek jasoko dira: lohien mailak dekantazio-putzuan izandako eboluzioaren jarraipen espezifikoa; eta isurketan mugatutako parametro guztien analisisa (aurreko puntuak agertzen dira), gutxienez hilean behingoa.

Ondorioztatzen bada beharrezkoa dela koagulazio/flokulazio- eta gehigarritzko dekantazio-tramendua egitea, sei hileko gehigarritzko epean ezartzeko programa jasoko da.

Hartutako neurri zuzentzaileak nahikoak ez direla ikusiz gero, baimenaren baldintzak betetzearen arduradun izanik, Leaz Valorización, S.L. enpresak behar beste aldaketa egingo ditu arazketa-instalazioetan isurketak baimenean ezarritako baldintzak bete ditzan. Aldaketak Administrazioari jakinaraziko dizkio aurrez, eta, behar izanez gero, baimena aldatzeko ere eskatuko du.

Kontrol-kutxeta bana jarriko da arazte-gunearen sarreran eta irteeran; kutxeta horiek isurketen lagin adierazgarriak lortzeko eta arazketa-instalazioen errendimendua egiaztatzeko beharrezko ezaugarri guztiak izango dituzte. Kutxetak sarbide zuzena duten lekuan kokatuko dira, hala bada-gokio, Ingurumen Sailburuordetzak ikuskatu ahal izan ditzan.

Kasu honetan, efluentea kontrolatzeko nahitaezkoa da ondorengo elementuak izatea:

- pH neurgailua eta emari-neurgailua, isurketaren azken kontrolerako, neurrien erregistro informatizatuarekin.

Era berean, segurtasun-neurri hauek izan beharko dira:

- pHs alarma-sistema, barrutitik kanporakoa, telefonia mugikorrari konektatua.
- Lixibiatuen ebakitze-balbula bat jartzea putzuaren sarrerako kutxetan.
- Eguzki-sorgailuaren osagarritzko ekipo elektrogenoa jartzea.

D.2.2.5.— Isurketen kontrol-kanona.

Uraren Legearen Testu Bateginaren 113. artikulua eta Jabari Publiko Hidraulikoaren Araudiko (606/2003 Errege Dekretua) 291. artikulua aplikatuz, honako hau da isurien kontrol-kanonari dago-kion zenbatekoa:

(IKK): Isurketen Kontrol Kanona= $B \times P_u$.

$$P_u = P_o \times K_m$$

$$K_m = K_2 \times K_3 \times K_4$$

Honela ulertuta:

V = Isurketa baimenduaren bolumena (m^3 /urte).

P_u = Isurketaren kontroleko prezio unitarioa.

P_o = Oinarrizko prezioa m^3 -ko isurketaren izaeraren arabera.

K_m = Isurketaren maiorazio edo minorazioko koefizientea.

K_2 = Isurketaren ezaugarrien araberrako koefizientea.

K_3 = Isurketaren kutsadura-mailaren araberako koefizientea.

K_4 = Ingurune hartzaillearen ingurumen-kalitatearen araberako koefizientea.

1. isurketa: zabortegiko lixibiatuak.

B: Bolumena: P_o: Hondakin-ura: Industriala K_2: Industriala, 1 motakoa, gai arriskutsuekin K_3: Tratamendu egokia K_4: Kategoría: I	$B = 6.175 \text{ m}^3/\text{urte}$ $P_o = 0,04132 \text{ €/m}^3$ $K_2 = 1,28$ $K_3 = 0,5$ $K_4 = 1,25$
---	---

$$K_m = 1,28 \times 0,5 \times 1,25 = 0,8.$$

$$P_u = 0,04132 \times 0,8 = 0,033056 \text{ euro/ m}^3.$$

$$\text{Isurien kontrol-kanona} = 6.175 \text{ m}^3/\text{urte} \times 0,033056 \text{ euro/ m}^3 = 204,12 \text{ euro/urte}.$$

Kanonaren zenbatekoa ez da aldatuko isurtzeko baimenaren baldintzak edo isurien kontrol-kanonaren kalkuluan kontuan hartzen den faktoreren bat aldatzen ez diren artean.

Urte natural bakoitza amaitu ondoren, administrazio eskudunak baimenaren titularrari urte horri dagokion isurien kontrol-kanonaren likidazioa jakinaraziko dio.

Isurien kontrol-kanona autonomia erkidegoek edo tokiko korporazioek saneamendu- eta arazketa-obra finantzatzeko ezar ditzaketen kanon edo tasekiko independentea izango da (Urei buruzko Legearen Testu Bateginaren 113.7. artikulua).

D.2.3.– Sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Instalazioetan sortutako hondakin guztiak hondakinei eta lurzoruei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legean eta aplikatzekoak diren arautegi espezifikoetan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira, eta, kasuan kasu, karakterizatu egin beharko dira beren izaera eta helbururik egokiena zehazteko.

Espresuki debekatuta dago sortzen diren hondakin-mota ezberdinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; hondakinak jatorrian bertan bereiziko dira, eta hondakinak biltzeko eta biltegitartzeko bitarteko egokiak jarriko dira, nahasketarik ez gertatzeko.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro balioztatu egin behar da eta horretarako balioztatze gune baimendu batera eraman behar dira. Hondakinak deuseztatu ahal izango dira, baldin eta haiek balioztatzea teknika, ekonomia edota ingurumen aldetik bideragarria ez dela behar bezala egiaztatzen bada. Birsortzea eta berrerabiltzea lehenetsiko dira, balioa emateko beste modu material edo energetikoen aurretik.

Era berean, hondakinak tratatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan instalazio baimenduak badaude, instalazio horietara bidaliko dira lehenetsunez, autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioei jarraituz.

Hondakinen azken norakoa zabortegi baimenduan ezabatzea dela aurreikusten baldin bada, orduan hondakin horiek ezaugarritu egingo dira, Kontseiluaren 2002ko abenduaren 19ko 2003/33/EE Erabakiak, hondakinak hondakindegietan hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dituenak,

xedatutakoari jarraiki, eta otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuak, hondakinak hondakindegietan biltegiatuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duenak, ezarritako jarraibideen arabera.

Instalazioan sortutako hondakinen kantitatea (ebazpen honetan jasoa) orientagarria da soilik, jardueraren ekoizpen-gorabeherak eta ekoizpenaren eta hondakin-sortzearen arteko erlazioa kontuan hartuta. Erlazio hori jardueraren adierazleetan ageri da. 16/2002 Legearen 10. artikuluan (2.d idatzi-zatian) xedatutakoa baztertu gabe, instalazioko aldaketak kalifikatzeko, sortutako hondakinen kantitatea handitzeak aurretik ezarritako biltegiatze- eta ontziratze-baldintzak aldatzea dakarrenean soilik eskatu beharko da baimena egokitzea.

Hondakinak biltegiatzeko guneak edo guneek lurzoru estankoa izan beharko dute. Egoera fisiko likidoan edo oretsuan daudelako edo oso bustita egoteagatik isurketak edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakinen kasuan, haiek biltzeko kubetak edo sistema egokiak jarriko dira, gerta daitezkeen isurketak kanpora irten ez daitezkeen. Hauts itxurako hondakinen kasuan, hondakinak euri-urarekin bustitzea edo haizeak herrestan eramatea eragotziko da, eta, beharrezkoa izanez gero, estali egingo dira.

Hondakinak desagertu, galdu edo ihes eginez gero, berehala jakinaraziko da gertatutakoa ingurumen-organismoan.

D.2.3.1.– Hondakin arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin arriskutsuak hauek dira:

- 1. prozesua: «Zerbitzu orokorrak»

- 1. hondakina: Erabilitako olioak.

- Identifikazioa: B95452769/2000004630/1/1.

- Hondakinaren kodea: Q7//R13//L8//C51//H5/6//A920//B0019.

- EHZ: 130205.

- Urtean sortutako kantitatea: unean unekoa.

Mantentze-lan orokorrak azpi-prozesuan sortzen dira, makinen olioak birjartzeko lanetan.

- 2. hondakina: «Fluoreszenteak eta lanpara ultramareak».

- Identifikazioa: B95452769/2000004630/1/2.

- Hondakinaren kodea: Q6//R13//S40//C16//H14//A920//B0019.

- EHZ: 200121.

- Urtean sortutako kantitatea: unean unekoa.

Mantentze-lan orokorrak azpi-prozesuan sortzen dira, lanpara fluoreszenteak birjartzeko lanetan.

- 3. hondakina: «Berun azidozko bateria erabiliak».

- Identifikazioa: B95452769/2000004630/1/3.

- Hondakinaren kodea: Q6//R13//S37//C18/23//H8//A920//B0019.

- EHZ: 160601.

– Urtean sortutako kantitatea: unean unekoa.

Mantentze orokorreko azpi-prozesu batean sortzen dira, bateriak birjartzeko lanetan.

○ 4. hondakina: «Metalezko ontzi hutsak».

– Identifikazioa: B95452769/2000004630/1/4.

– Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C41/51//H5//A920//B0019.

– EHZ: 150110.

– Urtean sortutako kantitatea: unean unekoa.

Ontziak biltzeko azpi-prozesuan sortzen dira.

○ 5. hondakina: «Plastikozko ontzi hutsak».

– Identifikazioa: B95452769/2000004630/1/5.

– Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C41/51//H5//A920//B0019.

– EHZ: 150110.

– Urtean sortutako kantitatea: unean unekoa.

Ontziak biltzeko azpi-prozesuan sortzen dira.

○ 6. hondakina: «Olio-iragazkiak».

– Identifikazioa: B95452769/2000004630/1/6.

– Hondakinaren kodea: Q9//R13//S35//C51//H5//A920//B0019.

– EHZ: 160107.

– Urtean sortutako kantitatea: unean unekoa.

Xurgatzaileak biltzeko azpi-prozesuan sortzen dira.

○ 7. hondakina: «Erregai-iragazkiak».

– Identifikazioa: B95452769/2000004630/1/7.

– Hondakinaren kodea: Q9//R13//S35//C51//H5//A920//B0019.

– EHZ: 160121.

– Urtean sortutako kantitatea: unean unekoa.

Xurgatzaileak biltzeko azpi-prozesuan sortzen dira.

○ 8. hondakina: «Presiozko ontziak (espraiak, aerosolak)».

– Identifikazioa: B95452769/2000004630/1/8.

– Hondakinaren kodea: Q6//R13//S12/36//C41//H3B//A920//B0019.

– EHZ: 160504.

– Urtean sortutako kantitatea: unean unekoa.

Ontziak biltzeko azpi-prozesuan sortzen dira.

○ 9. hondakina: «Botoi-pilak».

– Identifikazioa: B95452769/2000004630/1/9.

– Hondakinaren kodea: Q6//R13//S37//C16//H6//A920//B0019.

– EHZ: 160603.

– Urtean sortutako kantitatea: unean unekoa.

Mantentze-lan orokorren azpi-prozesuan sortzen dira.

○ 10. hondakina: «Gai arriskutsuekin kutsatutako materialak (trapuak, eskularruak eta xurgatzaileak)».

– Identifikazioa: B95452769/2000004630/1/10.

– Hondakinaren kodea: Q5//D15// S40//C41/51//H5//A920//B9107.

– EHZ: 150202.

– Urtean sortutako kantitatea: unean unekoa.

Materialak eta xurgatzaileak biltzeko azpi-prozesuan sortzen dira.

Sortutako hondakin arriskutsuen urteko kantitateak eman beharko ditu sustatzaileak:

a) Hondakin arriskutsuak biltzeko sistema bereiziak erabiliko dira, duten tipologia dela-eta, isuriren bat gertatuz gero, nahasi, arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zaildu zezaketen kasuetan.

b) Hondakin arriskutsuak dituzten ontziek uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak (maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea, hondakin toxiko eta arriskutsuei buruzkoa, betearazteko oinarrizko araudia onartzen du Dekretu horrek) 13. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak kon-tuan izan beharko dituzte; itxita egongo dira kudeatzaileak jaso arte, isuri edo lurrundu ez daitezen.

c) Aurreko paragrafoan aipatzen diren ontziek etiketatuta egon beharko dute, eta etiketak argia, irakurtzeko modukoa eta ezabaezina izan beharko du; etiketa 1988ko uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 14. artikuluan horretarako adierazitako jarraibideen arabera izango da.

d) Gainerako hondakin arriskutsuak ezin izango dira 6 hilabete baino gehiago biltegitatu.

e) Hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eraman aurretik, nahitaezko baldintza izango da agiri baten bidez egiaztatzea kudeatzaile baimendu horrek hondakinak onartu dituela. Agiri horretan hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak administrazio-baimenarekin bat datozela. Agiri hori Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da hondakina lehenengoz erretiratu aurretik, eta, behar izanez gero, hondakinen kudeatzaile berri batengana eraman aurretik. Beharrezkoa izanez gero, karakterizazio xehatua egingo da, proposatutako tratamenduaren egokitasuna egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua ebazpen honetan jasotzen diren hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela.

f) Hondakin arriskutsuak eraman aurretik eta, hala badagokio, horretarako egin beharreko jakinarazpena eginda dagoela, araudian zehaztutako aurretiaz, kontrolerako eta jarraipenerako agiria bete beharko da. Agiri horren ale bat garraiolariari emango zaio, eta zamarekin batera eraman beharko du jatorritik helmugaraino. Leaz Valorización, S.L. enpresak onarpen-agirien

eta kontrol- eta jarraipen-agirien edo haien baliokidea den agiri ofizialaren artxiboa gutxienez bost urtez erregistratu eta gorde beharko du.

g) Egiaztatu egin beharko da hondakin arriskutsuak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eramateko erabiliko den garraiobideak horrelako gaiak garraiatzeko indarrean dagoen legerian ezarritako baldintzak betetzen dituela.

h) Leaz Valorización, S.L. enpresak ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuaren, industriako olio erabilien kudeaketa arautzen duenaren eta irailaren 29ko 259/1998 Dekretuaren, Euskal Autonomia Erkidegoan olio erabiliaren kudeaketa arautzen duenaren arabera kudeatu beharko du sortutako olio erabilia.

i) Ekipo elektriko eta elektronikoen hondakinak, horien artean hodi fluoreszenteak, tresna elektriko eta elektronikoei eta horien hondakinen kudeaketari buruzko otsailaren 25eko 208/2005 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira. Halaber, pilen eta metagailuen hondakinek bete egin beharko dute pilei eta metagailuei eta haien hondakinen ingurumen-kudeaketari buruzko otsailaren 1eko 106/2008 Errege Dekretuak xedatutakoa. Baimendutako kudeatzailearen onarpen-agiria izateko, eraman aurretiazko jakinarazpena egiteko eta kontrolaren eta jarraipenaren agiria betetzeko betebeharretik salbu egongo dira kudeaketa-sistema integratuko kudeaketa-azpiegiturretara eramaten diren hondakinak, bai eta toki-erakundeei ematen zaizkienak gaika bildutako udal-hondakinekin eta horien parekoak direnekin batera kudea ditzaten, baldin eta dagokion toki-erakundeak eman izana egiaztatzen badu. Toki-erakundeei eman-izanaren egiaztagiria gutxienez bost urtez gorde beharko dira.

j) Leaz Valorización, S.L. enpresak, poliklorobifeniloak eduki ditzaketen gailuak baditu, kudeaketa egokia izan dadin, nahitaez bete behar ditu 1999ko abuztuaren 27ko 1378/1999 Errege Dekretuaren, poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten gailuak ezabatu eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituenaren baldintzak, bai eta otsailaren 24ko 228/2006 Errege Dekretua ere, aurreko errege-dekretua aldatzen duena.

k) Leaz Valorización, S.L. enpresak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko ekainaren 29ko 2037/2000 (EE) Erregelamenduan, ozono-geruza agortzen duten substantziei buruzkoan, zehazturiko substantzia erabiliak bere eskuetan dituen heinean, haiek berreskuratu egingo dira, deuseztatuak izateko aldeek onetsitako bitarteko tekniko bidez, edo ingurumenaren ikuspegitik onargarria den beste edozein bide tekniko erabiliz, edo, bestela, birziklatuak edo birsortuak izateko, aparatuen berrikusteko eta mantentzeko lanetan nahiz desmuntatu edo deuseztatu aurretik.

l) Leaz Valorización, S.L. enpresak urtero adierazi beharko du Ingurumen Sailburuordetzan sortutako hondakin arriskutsu guztien jatorria, kantitatea, norakoa eta adierazpenaren xede den ekitaldiaren amaieran aldi baterako biltegiatuta dauden hondakinen zerrenda. Igorpen hori dagokion urteko ingurumena zaintzeko programarekin batera egingo da.

m) Aurreko e) eta f) (kudeatzaileak EAEn daudenean), eta l) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektronik bidez, IKS-eeM Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilia.

n) Amiantoak duten hondakinak antzemanaz gero, Leaz Valorización, S.L. enpresak 1991ko otsailaren 1eko 108/1991 Errege Dekretuan, amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzekoan, ezarritako eskakizunak bete beharko ditu. Era berean, amiantoak duten hondakinak kudeatzeko egingo diren manipulazioak martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretuan

ezarritako aginduen arabera burutuko dira; dekretu horren bidez ezarri ziren amiantoarekin lan egiterakoan segurtasun- eta osasun-arloan bete behar diren gutxieneko baldintzak.

o) Hondakin arriskutsu bakoitzari dagokion izendapena eta kodifikazioa haren egoeraren eta ezaugarrien arabera ezartzen da, baimena izapidetzean jasotako informazioa kontuan hartuta horretarako. Kode batzuek aldaketaren bat izan badezakete ere, beste batzuk, oinarrizkoak direlako, aldatu gabe utzi behar dira ekoizpen-jardueran. Hondakina zer motatakoa den eta zer osagai arriskutsu dituen (ekainaren 20ko 952/1997 Errege Dekretuaren I. eranskinean xehetasunez jasota daude) zehazten dute, bai eta hondakina zer jarduerak eta zer prozesuk sortzen duen ere (uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren I. eranskinean xehetasunez jasota). Kudeaketa-bideetan hierarkizazioa zuzena dela egiaztatzeke, eta bai Hondakinak Kudeatzeko Europako Estrategian bai Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumeneko Esparru Programan (2007-2010) ezarritakoa betetzen dela bermatzeko, hondakin bakoitzaren onarpen-agirietan jasotako informazioa organo honek onartu beharko du, dagokion kudeatzaile baimenduak horretarako eskaria egin ostean. Egiaztatzeak garrantzi berezia izango du, batez ere, berreskurapena edo balioa ematea kudeatzeko eragiketa-kodearen arabera kudeatu diren hondakinen onartze-agirietan lagatze- edo ezabatze-kodeak balioztatzeke eskatzen bada.

D.2.3.2.– Hondakin ez-arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin ez-arriskutsuak hauek dira:

Hondakinaren izena	EHZ kodea	Zer prozesuri lotuta dagoen
Papera eta kartoia	19 12 01	Zerbitzu orokorrak
Beira	19 12 05	Zerbitzu orokorrak
Kimaketa eta lorezaintza	02 01 03	Zerbitzu orokorrak
Plastikoak	19 12 04	Zerbitzu orokorrak
Hiri-hondakin solidoak	20 03 01	Zerbitzu orokorrak
Dekantazio-lohiak	19 02 06	Lixibiatuen arazketa

Sortutako hondakin ez-arriskutsuen urteko kantitateak adierazi beharko dira:

a) Putzuan metatutako dekantazio-lohien kasuan, hondakin horrek ispilu-sarrera du gaur egun indarrean dagoen Europako Hondakinen Zerrendan. Beraz, hondakin hori hondakin ez-arriskutsutzat hartuko da, baldin eta hondakin hori aldez aurretik ezaugarritzen bada; ezaugarritze horren emaitzak Ingurumen Sailburuordetzara bidali beharko dira, proposatutako kudeaketa egokia dela egiaztatzeke. Ezaugarritze horretan sartu beharreko parametroak zehaztearren, Ingurumen Kaltetaren Zuzendaritzako Hondakin Arriskutsuen Zerbitzuarekin harremanetan jarri beharko dute. Baldin eta hondakin hori arriskutsua dela erabakitzen bada, ebazpen honetako D.2.3.1 atalean jasotako xedapenak aplikatuko dira.

b) Erabilitako ontziak eta ontzien hondakinak materialen arabera egoki bereizita entregatu beharko zaizkio agente ekonomiko (hornitzaile) bati, berrerabiliak izan daitezen, ontzi erabilien kasuan; edota berreskuratzaile, birziklatzaile edo balorizatzaile baimendu bati, ontzi-hondakinen kasuan.

c) Hondakin horiek ezabatzeko direnean, ezin dira urtebete baino gehiagoz biltegiatuta eduki; hondakinen azken helburua balioa ematea denean, 2 urtez gorde ahal izango dira.

d) Oro har, hondakin guztiak hustu aurretik, kudeatzaile baimendu batek emandako onarpen-agiria izan beharko dute, onarpen horretarako baldintzak zehaztuta. Agiri horren kopia bidali behar zaio Ingurumen Sailburuordetzari, proposatutako kudeaketa egokia dela eta ebazpen honetan xedatutako printzipio orokorrak betetzen direla egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua egokitzen zaiela ebazpen honetan hondakinen kudeaketari buruz jasotako printzipio hierarkikoei. Leaz Valorización, S.L. enpresak artxibategian erregistratu eta gorde beharko ditu onarpen-agiriak, edo horien agiri ofizial baliokidea, haiek aginduzkoak direnean, bost urtez gutxienez.

e) Halaber, otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuarekin, hondakinak zabortegean utzita eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duenarekin bat etorriz, hondakin ez-arriskutsuak zabortege baimendu batera eraman aurretik, jarraipenerako eta kontrolerako dagokion agiria bete beharko da. Agiri horiek bost urtez gorde beharko dira.

f) Aipatutako d) eta e) ataletan (kudeatzaileak EAEn daudenean) adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-eeM Sistema erabilia.

D.2.4.– Lurzorua babesteko baldintzak.

a) Lurzoruaren aurretiazko egoera-txostena aurkeztu beharko da, honako hauetan xedatutako betebeharrak betetzeko: 9/2005 Errege Dekretua, urtarilaren 14koa, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak zerrendatu eta lurzoru kutsatuak izendatzeko irizpideak eta estandarrak ezartzen dituen; eta 1/2005 Legea. Leaz Valorización, S.L. enpresak behar diren neurriak hartu beharko ditu lurra- ren babesa ziurtatzeko, hala nola egokitze jotako edo ingurumen-organoak eskatutako guztiak.

Era berean, ezohiko jarduneko prebentzioari eta esku-hartzeari buruz ebazpen honen G.3 atalean jasotako neurriak eta hondakinak biltegitratzeari buruz D.2.3 atalean jasotako neurriak hartuko ditu Leaz Valorización, S.L. enpresak.

Aipatu txostenak, gainera, isurtze-jarduerari lotutako arriskuen ezaugarritze kualitatiboa jasoko du, baldin eta hark ez badu zerrendatutako prebentzio- eta defentsa-neurririk; zehazki, hondakinak zabortegean utziz hondakinen ezabatzea arautzen duen abenduaren 27ko 1481/2001 Errege Dekretuaren I. eranskineko 4. atalean deskribatutako gutxieneko babes-hesietakorik gabe hondakinak utzi diren eremuei erreparatuko zaie. Ezaugarritze horren edukiak bat etorri beharko du hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Errege Dekretuaren I. eranskineko 3.4 atalean xedatutakoarekin.

b) Lurraren eta uren babes-maila neurtzeko, bereziki 1481/2001 Errege Dekretuaren I. eranskineko 3. atalean deskribatutako gutxieneko babes-hesietakorik ez duten eremuetako lur, lurpeko ur eta azaleko uretarako izan daitekeen arriskugarritasunari dagokionez, ingurumenerako arriskuen ebaluazioa igorri beharko da organo honetara, eta, hartan, bereziki kontuan hartu beharko da Jabari Publiko Hidraulikoari buruzko Erregelamenduaren III. tituluko II. kapituluaren 3. sekzioa (erregelamendua apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretuak onartu zuen, eta urriaren 30eko 1315/1992 Errege Dekretuak aldatu), 2. sekzioaren arabera («Uren kontrola eta lixibiatuen kudeaketa»); uren gaineko eskumena duen organoak emandako txosten bat ere igorri beharko da.

49/2009 Dekretuaren I. eranskinean xedatutakoaren arabera (Mota guztietako hondakindegietarako baldintza orokorrak), arriskuaren ebaluazioa aipatu eranskineko 3.4 atalean jasotako faseak gutxienez izango dituen azterlan baten bidez egingo da.

c) Jardueraren sustatzaileak, berekin lurra mugitzea dakarten obrak sustatzen baditu produktio-jarduera duten inguruetan bezala hura ez dutenetan ere, hondeaketaren xede diren materialen (lurren, zaborren eta abarren) karakterizazioa egin beharko du, jardun kutsatzaileen

ondorioz erasan diren ikustearren, eta, karakterizazio horren emaitzen arabera, haientzako kudea-keta-modu egokiena zehaztearren. Jarduerarik izan ez den eremuetan egindako obrak salbuetsi ahal izango dira aipatu ezaugarritze hori egitetik, betiere jarduerarik ez hori behar bezala arrazoituz gero.

Soberazko materialak instalazio berean berrerabili nahi izanez gero, materialok otsailaren 4ko 1/2005 Legean (lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzekoa) finkatutako EBA-B (industria-erabilera) balioa baino txikiagoa lortu beharko dute, eta lur horietako hidrokarburo-edukiak ez du arriskutsua izan beharko. Soberakinak hondakindegian hustu nahi izanez gero, ezaugarritze edo karakterizazioa hondakinak hondakindegietan biltegitatuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen 49/2009 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera egin beharko da. Otsailaren 4ko 1/2005 Legean xedatutako EBA-A balioak baino txikiagoak lortzen dituzten lurak lur naturalizat hartuko dira, eta, beraz, erabilera-murrizketarik gabekotzat.

Era berean, otsailaren 4ko 1/2005 Legearen 10. artikuluko 2. paragrafoak xedatutakoaren arabera, jarduera ezartzeko edo zabaltzeko hondeatze-lanetan edo lur-mugitzeetan kutsadura-zantzuak hautematen badira, lan horien arduradun zuzenak horren berri eman beharko die Udalari eta Ingurumen Sailburuordetzari, beharrezkoa izango balitz hartu beharreko neurriak ezar ditzan, 17. artikuluko seigarren paragrafoak ezarritakoa betez.

D.2.5.– Zaratari buruzko baldintzak.

Jarraian adierazitako zarata-mailak ez gainditzeko neurriak jarriko dira:

a) Ondorengo indize akustikoak gaindi ez daitezen beharrezko neurri guztiak ezarriko dira:

a.1) Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzan barrualdean entzungo den LAeq,60 segundo zarata-indizeak ezin izango du inoiz ere 40 dB(A) gainditu 07:00ak eta 23:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ez eta LMax indizeak 45 dB(A) ere.

a.2) Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzan barrualdean entzungo den LAeq,60 segundo zarata-indizeak ezin izango du inoiz ere 30 dB(A) gainditu 23:00ak eta 07:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ez eta LMax indizeak 35 dB(A) ere.

b) Zamaletan eta materiala kamioietan garraiatzean egiten den zaratak ez du nabarmen handituko sentsibilitate akustiko handieneko gunetako zarata-maila.

D.3.– Zabortegia zigilatze lanak egiteko baldintzak.

D.3.1.– Zigilatze-lanak hasi aurretiko baldintzak.

Leaz Valorización, S.L. enpresak zabortegiak eraikitzen eta zigilatzen espezializatuta dagoen obra-zuzendaritza bat aukeratu beharko du, eraikitzailearekin eta sustatzailearekin loturarik gabekoa.

Halaber, sustatzailearekin, eraikitzailearekin eta obra-zuzendaritzarekin loturarik izango ez duen enpresa bat hautatu beharko du, zabortegia zigilatze geosintetikoaren instalazioaren kalitatea bermatzeko kontrolaz arduradun. Enpresa hori izango da ebazpen honetako D.3.2. atalean ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatze arduraduna.

Obrak hasi aurretik, Leaz Valorización, S.L. enpresak obra-zuzendaritza teknikoaren eta zigilatze geosintetikoaren instalazioaren kalitatea bermatzeko kontrola egiteaz arduratuko den enpresaren izendapenaren berri eman beharko du ingurumen-organismoan.

D.3.2.– Zabortegia zigilatzeako obrak gauzatzeko baldintzak eta betebeharrak.

a) Zabortegiaren akaberako zigilatzearen segida ondorengo geruzez (goitik behera) osatuta egongo da:

- Gainazala belarkien bidez estaltzea. Zabortegiaren zigilatzearen gainean zuhaixkak edo zuhaitzak landatzea, helduak direla haien tamaina eta sustraiak, sakontasuna, mota, kokapena edo ezarritako babesak direla-eta, drainatze-geruzaren, geomintzaren edo zigilatzearen hesi geologiko artifizialaren segurtasunari edo funtzionaltasunari ez eragiteko baldintzapean egongo da; eta irristaduraren aurrean landaketak ez du segurtasun-faktorea 1,5etik behera murritzatu beharko.

- Gutxienez 0,15 metroko lodiera duen landare-lurrezko geruza.

- Gutxienez 0,60 m-ko lodiera duen estaldura-lurrezko geruza.

- Iragazketako ur garbien geruza drainatzailea. Ale formako material natural baten geruzaz osatuta egon daiteke (legarrak edo hareak), azpitik sastatzearen aurkako geozuntzaren bidez geomintzaz bereizia, eta gainetik iragazki-geruzaren bidez, edo drainatzaile-geokonposatuaren bidez. Nolanahi ere, geruza drainatzaile horren igorgarritasuna drainatze-luzeraren, drainatzearen isurialdearen eta gaineko lurzorua estaldura-geruzaren eroankortasun hidrauliko asearen arabera kalkulatu da, ezarritako geruzaren igorgarritasunak kalkulatuak igorgarritasunarekiko (6ko segurtasun-faktorea (FS) izan dezan, eta geruza horren barruan lodiera aseak geruzaren lodiera edo 0,30 m gaindi ez ditzan; txikiena den neurria, hain zuzen ere.

- 1,5 edo 2 mm-ko lodiera duen dentsitate altuko polietilenoazko geomintza (HDPE).

- Hesi geologiko artifiziala. 0,60 metroko lodiera eta (10^{-9} m/s-ko iragazkortasuna duen geruza mineral trinkotu batez osatuta egongo da, 0,15 m-ko 4 geruzaz eraikia. Xede horretarako, ezaugarri horiek dituzten hondakin trinkotuak edo antzeko babesa bermatzen duen bentonitazko geokonposatu bat erabil daitezke.

- 0,50 m-ko lodiera duen erregularizazio-geruza, Proctor Aldatua entseguaren gehienezko dentsitatearen % 95era trinkotutako hondakin hautatuz osatua.

- Gasak drainatzeko geruza, sortutako gas-emaria husteko diseinatua, zabortegiaren barruan presiorik sor ez dadin, gasak atmosferara ihes egitea edo hondakin-masan edo zabortegia zigilatzean egonkortasun mekanikoko problemak sortzea saihesteko.

Bestelako zigilatze-segidak proposa daitezke, modu egokian justifikatuz instalazioaren gorabehera zehatzei emandako soluzioa. Proposamen hori espresuki onartu beharko du ingurumen-organismoak.

Ezpondaren eremuetan instalatu aurretik, zigilatzeaosatzen duten geruzen egonkortasunaren azterketa egin beharko da, irristaduraren aurrean geruzek (1,5-eko segurtasun-faktorea dutela bermatu ahal izateko.

Behin betiko zigilatzearen azaleraren azken morfologia hauen arabera definituko da: utzi beharreko hondakin-masa itxi ondorengo 30 urteetan sortuko diren asentuen balioespena, eta zigilatze-segidan erabilitako materialek asentu horien ondorioz jasango dituzten deformazioei eutsiko dietela justifikatzeko kalkuluak. Modu berean, asentuaren ondoren behin betiko zigilatzearen azalerak jariatze-ur garbiak biltzeko areketarantz gutxienez % 2ko isurialdea duela justifikatu beharko da, eta areka horiek diseinuko emari-ahalmenari eusteko aukera eskainiko dutela.

b) Malda egokiak izan daitezen, zabortegiaren azaleraren birmoldaketa amaitu ondoren, zabortegiaren azaleraren plano takimetroko bat altxatuko da, okupatuko duen azalera eta zigitatu beharreko azalera definituko duena. Gutxienez metro bateko zabalerako banda gehigarria okupatuko du, birmoldaketaren ostean zabortegiak okupatutako azalarekiko. Plano takimetroko horren gainean, zigitatzeko lanetan zehar ager daitezkeen lixibiatuen iturburuak kokatuko dira, horietako bakoitzean hauek zehaztuz: emaria, pH, temperatura, eroankortasun elektrikoa (CE) eta neurketa-data.

c) Zigitatze-lanetan zehar sortzen den eta aldaketa nabarmenak eragiten dituen zigitatze-proiektuaren aldaketa oro Ingurumen Organoari jakinarazi behar zaio, gauzatu aurretik onar dezan.

d) Hondakin ez-arriskutsuen zabortegia zigitatu ondoren, zigitatze-lanen zuzendariak lanak ebazpen honetan ezarritako baldintza eta betebeharren eta ebazpenaren oinarri diren agiri teknikoaren arabera bete direla egiaztatu beharko du. Egiaztapena egiteko, obra-zuzendariak sinatutako zabortegia zigitatzeko obra-amaierako ziurtagiria bidali beharko du, ondorengo agiriekin batera:

- Dagokion eraikitze-proiektua («as built»), dagokion elkargo ofizial profesionalak oniritzia emanda duela. Plano-jokoa eta obra-fasean egindako aldaketek ebazpen honetan eta ebazpenaren oinarri diren agirietan ezarritako baldintza eta eskakizunei dagokienez segurtasunaren murrizketa ekartzen ez dutela adierazten duen justifikazioa. Halaber, obra bukatzerakoan ezin ikusi diren elementuen eta euren ezaugarrien argazki-erreportajea egin beharko du, xehetasunen ikuspegiak zein planoan duten kokalekua azalduz, ikuspegi panoramiko orokor gisa.

- Zigitatze-segidaren landare-lurraren geruzaren gainazalaren plano topografikoa, UTM-ETRS 89 koordenatuetan eta kota absolutuetan.

- Eraikitze-kalitatea kontrolatzeko eta bermatzeko programaren emaitzak. Programa horrek barne hartuko ditu eginiko lanak deskribatzen dituen memoria, emaitzak eta ondorioak laburbiltzen dituzten taulak barne; horrez gain, esparruko eta laborategiko emaitza analitiko guztiak jasotzen dituzten eranskinak (azken horien txosten osoak gehituko dira) eta laginketa-puntuen kokapena plano takimetrokoan.

e) Aurreko atalean adierazitako obra-amaierako ziurtagiria eta hari erantsitako dokumentazioa ingurumen-organoari aurkeztu beharko zaizkio, onar ditzan, zabortegia zigitatzeko lanak amaitu eta gehienez ere lau hileko epean. Aurkeztutako agiriak egokiak direla ikusi eta egiaztapen-bisita egin ondoren, ingurumen-organoak zigitatzea bukatzea eta itxi ondorengo aldia abiatzea onartuko ditu.

E) Hondakin ez-arriskutsuen zabortegia itxi ondorengo baldintzak.

a) Leaz Valorización, S.L. enpresa izango da zabortegia itxi ondorengo mantentze-lanen eta kontrolaren arduraduna, eta ingurumen-organoari horretaz arduratuko den pertsonaren izena jakinaraziko dio.

b) Posta-helbidea, telefonoa, faxa, posta elektronikoa edo edozein komunikabide eta kontaktu, hala nola itxi ondorengo kontrolaz arduratuko den pertsona aldatuz gero, zabortegiaren titularrak jakinarazi egin beharko du.

c) Itxi ondorengo kontrola eta zainketa-aldia 30 urtekoa izango da, zabortegiaren jardura eten eta zigitatzea bukatzen den data onartzen den unetik kontatzen hasita. Ingurumen-organoak hala irizten badio, data hori aldatu ahal izango da, itxi ondorengo kontroletan barrena lortutako emaitzen arabera. Itxi ondorengo aldiari dagokionez, sustatzaileak horrela eskatuta, ingurumen-organoak emandako ebazpenaren bidez ezarritako dira itxi ondorengo aldiaren bukaera eta horren inguruan

ezarritako betebeharren epe-betetzea. Aldez aurretik atal honetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatu beharko da.

d) Leaz Valorización, S.L. enpresak itxi ondorengo zainketak betetzeaz arduratuko den enpresa arduraduna izendatuko du. Enpresa hori zaborteziaren titularra ez baldin bada, titularrak enpresa hori gutxienez urtebeteko aldirako izendatuko du. Izendapen horren berri eman beharko zaio ingurumen-organoari, izendapena egin eta 15 eguneko epean, eta zaborteziaren titularren ordezkariaren onarpen-sinadura, itxi ondorengo zainketaz arduratuko den enpresako ordezkariaren onarpen-sinadura eta titularrak emandako agirien zerrenda xehatua barne izango ditu. Zerrendak aipatu zaborteziari dagozkion administrazio-eskakizun guztiak eta zigilatzean eta ordura arteko itxi ondorengo zainketan zehar sortutako agiri tekniko guztiak jaso beharko ditu.

e) Itxi ondorengo aldian zehar kokapenean obrak eta/edo jarduerak egin nahi izanez gero, aldez aurretik ingurumen-organoaren baimena izan beharko da. Nolanahi ere, jarduera horiek zigilatze osoa, perimetro-kanalen funtzionamendua, egonkortasuna edo itxi ondorengo kontrol-sistemaren elementuetan eraginik ez dutela, eta garatu nahi den jardueraren erabilerarako edo jarduerarako arrisku onartezina eragingo ez duela ziurtatu beharko zaio ingurumen-organoari. Hala eginez gero, horiek birjartzeko nahikoa neurri zuzentzaile aurreikusi direla ziurtatu beharko da.

Horretarako, zigilatzean sortzen den zuhaitz- edo zuhaixka-landaredia ezabatu egingo da.

Ereiteen mantentze-lanak egin beharko dira, hala nola, ebakitzeak, ongarritzeak eta ureztatzak.

Zigilatzearen gainean landare-espezie inbaditzaileak jartzea zaindu beharko da; hala badagokio, horiek ugaltzea kontrolatu eta erroatik kentzeko neurriak hartu beharko dira.

Erasandako eremu guztiak, nola zabortezia ezarri den lursailean eta haren instalazio osagarri eta sarbideetan kokatutakoak, hala zerbitzu-sareen eta lixibiatuen hustuketa gauzatzeko beharrezkoak direnak berriro egingo dira; bai eta aurkeztutako berritze-planeari agertzen ez arren plana bukatu ondoren erasandakoak ere.

Inolaz ere ez da baimenduko zabortezia itxi ondorengo fasean barrena zaborteziaren zigilatzea bizilekurako erabiltzea. Halaber, ez da baimenduko inolako jarduketarik zigilatze-segidako ur garbien drainatze-geruzaren gainazaletik 50 cm baino gutxiagora hurbil dadin.

F) Ingurumena Zaintzeko Programa.

Ingurumena zaintzeko programa sustatzaileak aurkeztutako agirietan aurreikusitakoaren eta honako atal hauetan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko da:

F.1.– Isuritako uraren kalitatea kontrolatzea.

a) Isurketaren kanpo-analisi hauek egingo dira:

Isurketa-puntua	Kontrolatu beharreko fluxua	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna	Kontrol mota
1	Zaborteziaren lixibiatuak	pH-a, eroankortasuna, uhertasuna SE, OEK, guztizko Po	Lau hilean behin	kanpokoa

Lurpeko urak:

Kontrolatu beharreko fluxua	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna	Kontrol mota
P-1 kontrol-piezometroa	pH-a, eroankortasuna, guztizko Po, guztizko Fe	Sei hilekoa	kanpoko
P-2 kontrol-piezometroa			

Sustatzaileak isurketa-fluxuaren kontrol-kutxetaren UTM koordinatuak eta kontrol-piezometroenak adierazi beharko ditu.

b) Kontrol bakoitza «Erakunde Laguntzaile» batek egin eta egiaztatuko du, eta baimendutako parametro bakoitzean gauzatuko da. Isurketak baimenean jarritako baldintza guztiak betetzen dituela ulertuko da, D.2.2.3 ataleko parametro guztientzat ezarritako mugak betetzen badituzte.

Isurketen kontrolen emaitzak eta txosten analitikoak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira laginak hartzen direnetik hilabeteko (1) epean.

c) Parametroen analisia «Standard Methods for the Examination of Water and Wastewater» txostenean (APHA, AWWA, WPCF, azken argitalpena) edo «ASTM Water and Environmental Technology» txostenaren 11. sailean jasotako metodo normalizatuak baten bidez egingo da. Parametroaren ohiko kontzentrazioaren arabera metodo egokiena hautatuko da. Egun erabiltzen diren metodoen bestelakoak diren analisi-metodoak erabil daitezke, kutsatzaileen kontzentrazioa modu egokiagoan definitzeko. Eskatutako analisien parametro bakoitzean erabilitako analisi-metodoa adierazi beharko da.

d) Laginketak kutsatzaile gehien sortzen den aldietan egingo dira beti.

e) Gainera, erakunde titularrak irteerako pH-aren hogeita hamar minutuan behingo etengabeko neurketen erregistroa bidaliko du hilero, posta elektronikoz, URA Uraren Euskal Agentziara.

f) Ingurumen Sailburuordetzak, egoki deritzonean, arazketa-instalazioak ikuskatu eta efluentearen emariak eta analisiak aztertuko ditu, isurketen emariak eta parametroek muga baimenduak gainditzen ez dituztela egiaztatzeko. Era berean, arazketa-instalazioak ustiatzeko titulazio egokia duen arduradun bat izendatzeko eskatu ahal izango dio titularrari.

g) Aipatutako maiztasunarekin, aldi bakoitzaren barruan efluenteak ezaugarri baimenduekiko izan ditzakeen desbideratzei, haien kausei eta zuzentzeko hartutako neurriei buruzko gorabeheren adierazpen bat erantsiko da.

F.2.– Datu meteorologikoen bilketa.

Zaborteia zigilatu eta itxi ondorengo aldiak, parametro meteorologikoen kontrol bat egingo da zabortei barruko estazio meteorologikoan, parametro hauek aztertu eta 10 minuturo gordeta:

- Haizearen abiadura eta norabidea.
- Airearen tenperatura.
- Hezetasun erlatiboa.
- Presio barometrikoa.
- Prezipitazioa.

- Eguzki-irradiazio orokorra.

Lurrunketa lisimetroetan lortuko da, eta horien kokapena eta ezaugarriak dagokien diseinua aurkeztu ondoren definituko dira.

F.3.– Zabortegiaren balantze hidrikoa.

Kanpoko erakunde batek urtero zabortegiaren balantze hidriko bat egin beharko du. Horretarako, erregistratutako lixibiatuen emariaren datuak eta erregistratutako datu meteorologikoak eta zabortegiaren gainazalean sortzen diren aldaketen plano topografikoak (zigilatutako eremuak, isurketarako eremuak, eta abar.) erabiliko dira.

Itxi ondorengo aldiko lehen balantzeak zabortegiaren portaera hidrodinamikoaren analisia barne izango du, erregistratutako emariaren eta eroankortasun elektrikoaren datuetatik eta itxi aurreko eta ondorengo balantze hidrikoaren alderaketatik abiatuta.

F.4.– Isuri-ontziaren topografia kontrolatzea.

Isuri-ontziaren topografiaren kontrola oinarrizko proiektuan jasotako proposamenaren arabera burutuko da. Kontrol topografiko horren emaitzek hauek jasoko dituzte: neurtzeko bitarteko eta materialak, gertatutako gorabeherak, aldi bateko bilakaeraren grafikoak, erregistratutako datuak euskarri elektronikoan (kalkulu-orria), eta horien interpretazioa.

Zabortegiaren ezpondan inklinometroak instalatzea ere barne hartuko du.

F.5.– Jardueraren adierazleak kontrolatzea.

Ingurumena zaintzeko programak jardueraren parametro adierazleen jarraipena egingo du urtero, ingurumenean duten eragina aztertzeko. Horretarako, sustatzaileak proposamen bat aurkeztuko du, adierazle horiek eta horien analisirako sistematika zehazteko, horrela ingurumen-hobekuntza ziurtatzeko enpresak berak ezarritako neurri eta mekanismoen eraginkortasuna egiaztatzeko.

F.6.– Zarataren kontrola.

a) Ld, Le, Ln, LAeq, Ti eta LAeq,60 segundo indize akustikoen hasierako ebaluazioa egin beharko da. Kontroleko lehen urtean izandako emaitzen arabera erabakiko da aurrerantzean neurketak egiteko maiztasuna.

b) Aurreko atalean adierazitako ebaluazio guztiak ENAC erakundeak espazio- eta denbora-lagin-ketarako egiaztatutako akustikaren esparruko entsegu-laborategiek egin beharko dituzte. Nolanahi ere, ingurumen organoak ebaluazio horiek egiten dituzten erakundeek gaitasun tekniko egokia dutela zainduko du.

c) Ebaluazio-metodoak eta -prozedurak eta ebaluazio horiei buruzko txostenak Ingurumen Sail-buruordetza honek emandako jarraibide teknikoetan ezarritakora egokituko dira.

F.7.– Emaitzak kontrolatzea eta bidaltzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten analisi eta txostenen emaitzak behar bezala erregistratuko dira, eta Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira. Zaintzeko programaren emaitzak urtean behin bidaliko dira, beti martxoaren 30a baino lehen, txosten batekin batera. Txosten horretan adieraziko dira neurri zuzentzaileen funtzionamendua, eta prozesuak eta ingurunearen kalitatea kontrolatzeko sistemak. Emaitzen analisia ere adieraziko da, eta bereziki aipatuko dira aldi horretan gertatu diren gorabehera garrantzitsuenak, horien ustezko arrazoiak eta konponbideak, eta baita laginketen xehetasunak ere, aurretik zehaztu ez baldin badira.

F.8.– Ingurumena zaintzeko programaren agiri bateratua.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren agiri bateratua egin beharko du. Bertan, baimen-eskaeran proposatutako betebeharrak eta ebazpen honetan jasotakoak bildu beharko ditu. Programa horrek hauek zehaztu beharko ditu: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, analisi edo neurketen maiztasuna, laginketak eta analisiak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko guneen kokapen xehatua. Halaber, dagokion aurrekontua adierazi beharko du.

Ingurumena zaintzeko programan jardueraren ohiko adierazleak eta horiek analizatzeko sistematika sartuko dira, ingurumen-hobekuntza ziurtatzeko enpresak berak ezarritako neurri eta mekanismoen eraginkortasuna egiaztatzeko (ingurumen-adierazleak).

G) Prebentzio-neurriak eta funtzionamendu-baldintzak ohiz kanpoko egoeretan.

G.1.– Fabrika gelditzeko eta abiarazteko eragiketak eta mantentze-lanetarako programatutako eragiketak.

Programatutako urteko mantentze-lanei dagokienez, isurien eta sortuko diren hondakinen balioespena egin beharko du enpresak, eta, dagokionean, horiek kudeatzeko eta tratatzeko proposamena ere bai.

G.2.– Jarduera etetea, itxi ondorengo aldia bukatuta.

Jarduera lege hauen aplikazio-esparrukoa da: lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legea (90.002 epigrafea «Hondakinak tratatzeko jarduerak») eta kutsadura sor dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpide zein estandarrak ezartzen dituen urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretua. Hori dela-eta, Leaz Valorización, S.L. enpresak hasiera eman beharko dio lurzoruaren kalitatearen adierazpenerako prozedurari, gehienez ere bi hilabeteko epean, jarduera behin betiko uzten duenetik kontatzen hasita, otsailaren 4ko 1/2005 Legeak 17.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

G.3.– Ezohiko funtzionamendua denean aplikatzeko prebentzio-neurriak eta jardunak.

Sustatzaileak aurkeztutako agirietan jasotako proposamenean ezohiko egoeretan aplikatu beharreko prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak zehazten dira. Horiez gain, ondorengo ataletan aipatzen diren baldintzak bete behar dira:

a) Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera bermatzeko, batez ere ustekabeko jario edo ihesak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden baliabideei dagokienez. Isuri-ihesak daudenean lurzorua babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (iragazgaiztea); biltegitratzeko neurri bereziak (gai arriskutsuak); egon daitezkeen isuri-ihesak antzemateko neurriak edo gainbetetzerako alarma-sistemak, lantegiko kolektore-sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitzeko beharra, maiztasuna, garbiketa mota); eta lurzoruaren gaineko isuriak biltzeko sistemak.

b) Aurreko paragrafoan adierazitako eskuliburuak ikuskapen eta kontrolerako programa jaso beharko du, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera, balbulak, presioa arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, andelen barnealdearen begi-bidezko ikuskapenak (hormena eta estaldurena) eta kubetetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, lurzorua kutsa dezakeen edozein egoerari aurrea hartzeko.

c) Era berean, ustiapenari buruzko eskuliburu bat eduki behar da, eta bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita antzemandako gertaerena ere.

d) Jarduerarako behar diren lehengaiak, erregaiak eta produktuak ingurunean ez sakabana-tzeko moduan biltegitratuko dira.

e) Larrialdirik gertatuz gero, berehala eta eraginkortasunez esku hartzeko beharrezkoak diren material guztiak edukiko dira, kantitate nahikoan: berriro ontziratzekeo erreserbako edukiontziak, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen isuriei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak; segur-tasuneko edukiontziak, hesiak eta erasandako inguruneak isolatzeko seinaleztapen-elementuak; eta babes pertsonalerako ekipamendu bereziak.

f) Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da kubetak husteko eragiketak kontrolatzeko protokolo edo agiri bidezko prozedura; eraginkortasunean eragin dezaketen produktuen jarioak ez dira tra-tamendu-plantara eramango.

g) Andel edo putzuen hondoan pilatzen diren solidoak ez dira ibilgura hustuko noizbehinkako garbiketa-lanetan; behar bezala kudeatuko dira, edo zabortegi baimendura eramango dira.

h) Arazte-prozesuan pilatutako hondakin solidoak eta lohiak aldizka aterako dira instalazioa behar bezala ibil dadin. Behar izanez gero, andel iragazgaitzetan eta hondoan hustubiderik ez dutenetan biltegitratuko dira.

i) Inoiz ez dira pilatuko euri-uren jariatzearen ondorioz ibilgu publikoa kutsatzeko arriskua egon daitekeen guneeetan.

j) Arazketa-instalazioek lohien tratamendua badute, xukatutako ura instalazioaren sarrerara bir-zirkulatuko da, hura tratatzeko.

k) Larrialdi-egoeretan babes zibilari buruzko araudian ezarritakoa bete beharko da, eta araudi horretan ezarritako baldintza guztiak bete beharko dira.

l) Titularrak beharrezko neurriak hartuko ditu araztegiak egoki ustiatzeko eta ezbeharrez gerta daitezkeen isuriak saihesteko dauden segurtasun-neurriak erabilgarri izateko. Kasu honetan, bal-dintza hauek azpimarratu behar dira:

Estazioan erroilu erako edo gai pikortatuzko, edo antzeko berariazko gai xurgatzailea egongo da, ustekabeko jario edo ihesetan berehala aplikatu ahal izateko.

Ebazpen honen D.2.3 atalean deskribatutako jardueraz gain, gasolioa biltegitratzeko eta maneiatzeko instalazioak behar den bezala isolatuko dira, haustura, ustekabeko gainezkatze eta abarreatik gerta daitezkeen jarioei aurre egiteko.

Ezarri beharreko instalazioaren ustiatze-protokolo edo -eskuliburu bat izango da nahitaez, enpresa espezializatu batek egina, D.2.3 atala betetzeko, eta ekipo elektromekaniko, zunda, mintz, dosifikatu eta kontrolatzeko tresna eta abarren azterketa- eta mantentze-lanak finkatuko dira ber-tan. Era berean, enpresa espezializatu batek egindako araztegiaren mantentze-lanen protokolo edo eskuliburu bat eduki behar da derrigorrez, eta bertan, hauek finkatuko dira: ekipo elektrome-kanikoen mantentze-lanak, arbastuen garbiketak, gehiegizko solido eta lohien purgak, eta abar.

Era berean, nahitaez kontratu bat sinatzea eskatzen da araztegiaren mantentze-lanetarako, eta prozesuaren, errendimendu eta arazketaren, ekipo elektromekanikoen eta sentsoreen funtziona-mendu egokia ikuskatzeko.

Hondakin-ura ezingo da «by pass» bidez isuri arazketa-instalazioetan.

m) Bereziki haizetsuak izango diren egunen iragarpena izanez gero (haizearen abiadura > 60 km/h), haizeak arrastaka eraman ditzakeen materialak aldeztu aurretik jaso beharko dira (plastikoak, poltsak eta abar).

n) Ingurunearen edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragin ditzakeen gorabehera edo ezohiko gertaeraren baten aurrean (besteak beste, ustekabeko isuria, isurtzeko muga-balioak gainditzea, edo zabortearen zigilatzearen edo itxi ondorengo sistemaren elementuren baten funtzionamenduari edo osotasunari eragin diezaiokkeen beste edozein), Leaz Valorización, S.L. enpresak gorabehera edo ezohiko gertaera horren berri eman beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari.

o) Gertakari edo arazo larriren bat edo ustekabeko isuriren bat egonez gero, eta nolanahi ere ezbeharrezko isuria edo ainerako isuria bada, SOS DEIAK eta Azkoitiko Udalarik jakinarazi beharko zaie berehala. Ondoren, eta gehienez ere 48 orduko epean, ezbeharrari buruzko txosten xehatua bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara. Txosten horretan, gutxienez, datu hauek agertuko dira:

- Gertakari-mota.
- Gertakaria non, zergatik eta zer ordutan gertatu zen.
- Haren iraupena.
- Ustekabeko isurketa bada, emaria eta isuritako gaiak.
- Mugak gaindituz gero, isuriei buruzko datuak.
- Eragindako kalteen kalkulua.
- Hartutako neurri zuzentzaileak.
- Prebentziozko neurriak berriro gerta ez dadin.
- Prebentziozko neurriak eraginkortasunez aplikatzeko aurreikusitako epeak.

p) Instalazioek suteen aurkako babesari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betekizunak betetzen dituztela egiaztatu beharko da. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagirak.

H) Baldin eta arautegi berria indarrean sartzeak edo barneratzen diren sistemen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hori egitea gomentatzen badute, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa aldarazi ahal izango dira, bai neurtu behar diren parametroen kasuan, bai neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan. Era berean, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa jardueraren sustatzaileak hala eskatuta edo ofizioz aldaraz daitezke, ingurumena zaintzeko programan lortutako emaitzetan oinarrituta.

I) Urtean behin, Leaz Valorización, S.L enpresak Ingurumen Sailburuordetzari jakinaraziko dizkio atmosferara eta uretara egindako isurtzeei eta sortu dituen hondakinei buruzko datuak, botatuko eta eskualdatutako kutsagarrien E-PRTR-Euskadi inbentarioa landu eta eguneratzeko, kutsagarrien isurtze eta eskualdatzeen europar erregistro bat ezartzen duen 2006ko urtarrilaren 18ko 166/2006 (EE) Erregelamenduaren artzapekidei jarraituz.

Informazio hori osatzen duten datuak ekitaldi horren hurrengo martxoaren 31 baino lehen bidali beharko dira, Ingurumenari buruzko Adierazpenaren (IA) bidez. Informazio-trukaketa horren funtsa Ingurumenari buruzko Adierazpenari (IA) dagozkion ingurumeneko datu teknikoak eta prozedura-koak sartzean datza, IKS-eeM Sistemako erakundeentzako bertsioaren bidez (www.eper-euskadi.net web-orrian eskuragarri): Ingurumen-informazioa Kudeatzeko Sistema. Datu horiek guztiek Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumenean eragina duten jardueren erregistroa osatuko dute, eta erregistro hori transakzio-basea izango da, datuak Europako Ingurumen Agentziaren erregistroetara bidaltzeko, E-PRTR-Europa erregistroa, alegia.

Era berean, ebazpen honetan aurreikusitako gainerako informazio-trukeak aipatu ingurumen-adierazpenaren bidez gauzatuko dira, ahal izanez gero.

Informazio hori publikoa izango da, ingurumenaren arloan informazioa eskuratzeko, publikoak parte hartzeko eta ingurumen gaitan justiziara heltzeko eskubideak arautzen dituen uztailaren 18ko 27/2006 Legeak, xedatutakoari jarraikiz –lege horrek 2003/4/EE eta 2003/2005/EE zuzentarauak kontuan hartzen ditu– eta, betiere, izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoa bermatuko da.

J) 2007ko apirilaren 21eko 509/2007 Errege Dekretuaren 4. artikuluko 3. atalari jarraituz, instalazioaren titularrek agintaritzari jakinarazi beharko diote instalazio horietan erabiltzen eta ekoizten diren substantziek (1907/2006 EE Erregelamenduan erregistratu eta ebaluatzeko aurreikusitako prozesuan identifikatuta daude) zer arrisku izan dezaketen giza osasunerako eta ingurumenerako.

K) Ingurumeneko baimen bateratu honen mendeko instalazioan egindako aldaketek bat etorri beharko dute kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak 10.3 artikuluan xedatutako komunikazio-erregimenarekin. Hori horrela, ingurumeneko beste baimen bateratu bat beharko da aldaketak funtsezkoak direnean.

Instalazioetan egiten den edozein aldaketa jakinarazi egin beharko da; horretarako, hona helbide elektronikoan datorren formularioa beteko da:

http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-3252/es/contenidos/informacion/ippc/es_6939/adjuntos/cuestionario_modificaciones.doc

Poluzioaren Prebentzioari eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 10.2 artikuluan ezarritako irizpideei jarraituz, organo horrek eskatutako aldaketa kalifikatu eta funtsezkoa den ala ez esango du.

Era berean, proiektatutako aldaketa Euskadiko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legeko IB eranskinean, edo proiektuek ingurumenean duten eragina ebaluatzeko legearen testu bategina onartzen duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuko I. eranskinean sartuta badago, hizpide dugun aldaketari baimena eman aurretik, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egin beharko zaio.

Baldin eta aldaketa ez badago jasota ez 3/1998 Legearen IB eranskinean ez 1/2008 Errege Dekretu Legegilearen I. eranskinean, baina bai horren II. eranskinean, organo honek gehienez ere hiru hilabeteko epean erabakiko du aldaketa horri ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egin behar zaion ala ez, betiere Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen arabera.

Hirugarrena.– Leaz Valorización, S.L. enpresak ingurumen-organoaren aurrean egiaztatu beharko du ebazpen honetako bigarren ataleko ondorengo puntuetan ezarritako baldintzak betetzen dituela, ebazpen hau jakinarazten denetik gehienez 6 hilabeteko epean:

A) (erantzukizun zibileko aseguru).

B) (fidantza).

C) (instalazioaren arduradun teknikoaren informazioa).

D.2.2.4 (isurketa-mugak betetzen direla bermatzeko hartutako neurri zuzentzaileen ebaluazio-azterketa)).

D.2.3.1 eta D.2.3.2 (urtean sortutako hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuen kantitatek);

D.2.3.2.a (dekantazio-lohien aurretiazko ezaugarritzea).

D.2.3.1.e eta D.2.3.2.d (sortutako hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuen onarpen-agiriak).

D.2.4.a (lurraren egoerari buruzko aurretiazko txostena).

D.2.4.b (arriskuen ebaluazio-azterketa).

D.3.1 (obra-zuzendaritzaz eta geosintetikoen kalitatea bermatzeko kontrolaz arduratzen diren enpresen jakinarazpena).

F.3 (zabortegiaren balantze hidrikoa).

F.4 (zabortegiaren topografia).

F.5 (adierazleei buruzko proposamena).

F.6 (zarataren kontrol-proposamena).

F.8 (ingurumena zaintzeko programaren agiri bateratua).

G.3.a (prebentziozko mantentze-lanei buruzko eskuliburua).

G.3.c (ustiapenari buruzko eskuliburua).

G.3.e (larrialdi-kasuetarako materialen zerrenda).

G.3.f (kubetak husteko maniobraren protokoloa).

G.3.p (suteen aurkako babesari buruzko egiaztagiriak).

Era berean, ebazpen hau jakinarazi eta gehienez ere hiru hileko epean, honako hau aurkeztu beharko da:

B) (finantza-azterketa eguneratua).

Ebazpen hau eraginkorra izan dadin, aurretik Ingurumen Sailburuordetzari agiri bidez egiaztatu beharko zaio honako hau betetzen dela:

D.3.2.d (obra-amaierako ziurtagiria eta «as built» eraikuntza-proiektua).

Halaber, baimen hau indarrean jarri aurretik, ingurumen-organo honi atxikitako zerbitzu teknikoaren ikuskapen-bisitan egiaztatu beharko da instalazioak aurkeztutako proiektuaren arabera eta ebazpen honetan ezarritakoarekin bat etorrita eraiki eta hornitu direla. Horretarako, aipatutako ikuskapen-bisitaren aurretik, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu beharko du baldintza horiek betetzen direla egiaztatzen duen agiria, teknikari aditu batek eginda.

Adierazitako baldintzak betetzen direla ziurtatzean, ebazpena emango da, eta, horren bitartez, ingurumeneko baimen bateratua eraginkortzat aitortuko da. Ematen den ebazpena zigilatzearen amaiera onartzeari, zigilatutako eremuko luraren kalitatearen gaineko adierazpenari eta itxi ondoko aldia hasteari buruzkoa izango da.

Laugarrena.— Edonola ere, ingurumen-baimen bateratua ofizioz aldatu ahal izango da uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 26. artikuluan aurreikusitako kasuetan.

Artikulu hori betetzea baztertu gabe, ebazpen honen baldintzak —ingurumena zaintzeko programan jasotakoak barne hartuta— aldatu ahal izango dira, jardueraren sustatzaileak eskatuta, behar bezala justifikatuz gero. Gainera, ofizioz aldatu ahal izango dira, honako egoera hauetan:

- Araudi berria indarrean jartzen bada.
- Ingurunearen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza esanguratsu berrietara egokitzeko beharra ikusten bada, bereziki inplikaturako sistemen hauskortasuna areagotzen dela antzematen bada.
- Ingurumena zaintzeko programan jasotako emaitzen edo bestelako oharpenen arabera, ingurumen-inpakturako ezarritako neurri babesle, zuzentzaile edo konpentsatzaileak nahikoak ez direla egiaztatzen bada.

Bosgarrena.— Leaz Valorización, S.L. enpresak ebazpen honen xede den hondakin ez-arriskutsuen zabortearen proiektuaren inguruan titulartasun-aldaketarik eginez gero, aldaketa hori jakinarazi beharko du, Ingurumen Sailburuordetzak onar dezan.

Edonola ere, zaborteak eta bere instalazio osagarriak okupatutako lursailaren titulartasuna transmititzen bada edo hori edukitzea bertan behera uzten bada, ebazpen honetan aurreikusitako betebeharrak betetzen jarraitu beharko da. Otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuak (hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena) 21. eta 24.4 artikuluetan xedatutakoaren arabera, titulartasuna eskualdatu dela (salmenta, lagapena eta abar) jakinarazi beharko zaio ingurumen-organoari, hura gauzatu eta gehienez ere hilabeteko epean, eta organo horrek agiri bidez onartu beharko du eskualdaketa hori ebazpen egokia emanaz.

Seigarrena.— Baimen honek balioa galduko du honako hauek gertatuz gero:

- Epearen barruan ez egiaztatzea ebazpen honetako hirugarren atalean ingurumen-baimen bateratuak ondorioak izan ditzan adierazitako baldintzak betetzen direla, interesdunak, behar bezala justifikatuz, epea luzatzeko eskatzen ez badu.
- Leaz Valorización, S.L. enpresaren nortasun juridikoa azkentzea, indarrean dagoen araudian aurreikusitako kasuetan.

Zazpigarrena.— Ebazpen honen edukia jakinaraztea Leaz Valorización, S.L. enpresari, Azkoitiko Udalari, ingurumen-baimen bateratua emateko prozeduran parte hartu duten erakundeei eta gainerako interesdunei.

Zortzigarrena.— Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Bederatzigarrena.— Ebazpen honek ez du agortzen administrazio-bidea; horrenbestez, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunean kontatzen hasita; hori guztia Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen

114. artikuluekin eta ondorengoekin bat etorriz (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen lege hori).

Vitoria-Gasteiz, 2013ko otsailaren 18a.

Ingurumeneko sailburuordea,
JOSÉ ANTONIO GALERA CARRILLO.